

ZER JANEN DUGU?

Mutiko: Jatera!

Neska: Zer janen dugu?

Mutiko:E... Ebe...

Neska: Lehenik zer den hobeki ikusi behar genuke. Dena atera dezagun!

Mutiko: Uau! Arrazoi duzu, errazago izanen da. Orain elikagaiak sailka ditzagun! Nola ote? Ideia ona, behi anderea! Lehenik, has gaitezen animalia jatorriko elikagaietarik!

Neska: Entseatuko naiz. Beraz, animalia jatorriko elikagaiak lagun gaitzazue, zuen arteko taldea sortuz. Haragiak, arrainak, arroltzeak. Eta zuek ere, jogurtak. Eta gasna! Eta bai! Eraldatuak izan zarete, baina esnez eginak baitzarete, zuek ere animalia jatorria duzue.

Mutiko: Ez, hi ez, brokolia! Itzul guregana. Berehala sailkatuko ditugu landare jatorriko elikagaiak.

Neska: Ene gain! Eta orain, jaun-andereak, landare dantza ikusiko duzue. Zatozte, barazkiak, zerealak, fruituak, eta hi ere, ogi guria. Alabaina gariz egina haiz, beraz, landare jatorria dun.

Mutiko: Bikain! Eta ura, non ezarri behar dugu?

Neska: Urak eta gatzak mineral jatorria dute, beraz, bereiz ezarriko ditugu. Jaten dugun guzia hiru sail hauetarik heldu dira: landareak, animaliak, mineralak.

Mutiko: Horra, so egizu. Tomate eta ahuntz gasna tartak ez daki nora joan.

Neska: Tartaren sailkatzea zailago da. Hartan bada orearen egiteko gari irina, bai eta tomateak ere, beraz landareak. Eta ahuntz gasna animalia jatorrikoa da.

Mutiko: Eta horrez gain, orean urik eta gatzik ere bada; biek mineral jatorria dute. Ondorioz, tarta hori hiru sailetakoa da.

Neska: Landare, animalia eta mineral sailetakoa. Ez dakit batere non sailka.

Mutiko: Hmm... nik badakit. Dena sailkatua baitugu... bazkari gisa sailka genezake, zer diozu?

Neska: Ideia bera nuen! Entsalada eta fruitu bat gehituz, apairu orekatua izanen dugu. Alo, tarta polita! Haugi gure urdailaren goxatzera!

Mutiko: Bai! Lekuño bat eginen dinagu!